



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urriaren 19a

83. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa, 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa, 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio bat abiaraz dezan gizarte eragileekin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, Enplegu Publikoaren Eskaintza bat adosteko. Mozioa erretiratzeari (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak argitalpen politika dela-eta egindako gastuari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (7. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak “osasan arloko laguntzaren eredia” erretiratzeko edo aldatzeko asmorik duen, osasan-erkidegoaren kritikak eta oposizioa ikusita, Marisa De Simón Caballero andreak egina (8. or.).

- Galdera, egoera irregularrean dauden pertsonen diru-laguntzak emate aldera “Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun-laguntza emateko hitzarmena” kontusaila erabili ordez “Garapenerako lankidetzaz” kontusaila erabiltzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea zertan den emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta ekiditeko protokoloa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (9. or.).
- Galdera, erretirodunen osasun-txartelen erabileran gertatzen den iruzurrari buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (10. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak inolako neurririk hartuko duen Nafarroa Ecofinen egon dadin exijitzeko, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren gaineko zenbait auziri buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Merkataritza Ganberarekiko harremanean Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa-hobekuntzarako neurriei buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (11. or.).
- Galdera, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, “Itzaleko bidesaria” finantzaketa-ereduak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobekuntzako neurriei buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Moderna Planari lotutako jarduketaren guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobetzeko neurriei buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, “Reyno Arena” pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroarako Inbertsio Publikoen Plana taxutu eta bukatzeari buruzkoa, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Foruzaingoan txapelaren erabilera arrunta ordezteko hartutako erabakia-
ren arrazoiei buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Miren Julia Aranoa Astigarraga andrea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldean sartzea (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa, 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzko Foru Lege proposa-

mena. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen erosahalmenaren galera dela-eta Foru Lege proposamena, 2012rako ondorioekin. Proposamen hori

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu zuen, eta 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzkoa, 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran erabaki zuen aintzat hartzea 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena mantentze aldera Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzko Foru Lege proposamena. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea 2012ko ekitaldian aurreikusitako erosahalmena

mantentze aldera Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei laguntza ekonomiko osagarriak ordaintzeari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Proposamen hori buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko azaroaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako ondorioekin, erosahaltenaren galera dela-eta.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran erabaki zuen aintzat hartzea 2012rako ondorioekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen erosahaltenaren galera dela-eta Foru Lege proposamena. Proposamen hori Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea erosahaltenaren galera dela-eta 2012rako ondorioe-

kin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko azaroaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio bat abiaraz dezan gizarte eragileekin Funtzio Publikoko Mahai Orokorrean, Enplegu Publikoaren Eskaintza bat adosteko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Maiorga Ramírez Erro jaunak eta Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da negoziazio bat abiaraz dezan gizarte eragileekin Funtzio Publikoko Mahai

Orokorrean, Enplegu Publikoaren Eskaintza bat adosteko. Mozio hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak argitalpen politika dela-eta egindako gastuari buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak argitalpen politika dela-eta egindako gastuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Sozialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osoko Bilkuran erantzuteko.

Argitalpen politikaren bidez bilatutako helburuei buruz eta departamentu bakoitzak nahiz atxikitako erakunde bakoitzak 2011n egindako argitalpenen zerrenda xehakatuari buruz parlamentari honek egindako galdera bati Nafarroako Gobernuak emandako erantzunaren arabera, Nafarroako Gobernuak 729.581,96 euroko gastua egin zuen, honela banatuta:

Hezkuntza: 61.195 euro

Gizarte gaiak: 20.563 euro

Kultura eta Turismoa: 218.488 + 84.315 euro

Landa garapena: 3.619

Ekonomia eta Ogasuna: 53.734 euro

Industria eta Teknologia: 261 euro

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua: 17.971 euro

Beste batzuk: 1198 + 28.969 euro

Herri lanak: 15.703 euro

Gizarte Politika: 6.311 euro

Lehendakaritza: 229 + 21.845 euro

Erakundeekiko Harremanak eta Gobernuoko Eleduna: 158.124 euro

Osasuna: 37.048 euro

Zenbateko orokor hori ondoko formatuetan banatzen da:

Liburuak: 69

Aldizkako argitalpenak: 18

Esku-orriak: 146

Ikus-entzunezkoak: 10

Beste batzuk: 118

Horien sakabanaketa eta irregulartasuna ikusita, eta kontuan hartuta erkidegoak bizi duen ekonomia nahiz aurrekontu egoera, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuaren ustez, arrazoizkoa al da argitalpen politika horretan erabilitako dirukopurua?

Aurreikusita al dauka aldaketarik egitea, bai argitalpen kopuruari, bai argitalpenak egiteko irizpideei dagokienez?

Iruñean, 2012ko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak “osasan arloko laguntzaren eredu” erretiratzeko edo aldatzeko asmorik duen, osasan-erkidegoaren kritikak eta oposizioa ikusita.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak “osasan arloko laguntzaren eredu” erretiratzeko edo aldatzeko asmorik duen, osasan-erkidegoaren kritikak eta oposizioa ikusita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasan-erkidegoak nahiz gizarte-kolektibo askok "osasan arloko laguntzaren eredu" berriari egindako kritikak eta oposizioa ikusita –eredu berria maiatzean aurkeztu zuen Osasuneko kontseilari Vera andreak–, Nafarroako Gobernuak ba al du premiazko zerbitzuaren antolamenduari buruzko proposamena erretiratzeko edo aldatzeko asmorik, zehazki eredu horretan jasotzen diren landa-larrialdien eta zerbitzu jarraituaren antolamenduari eta oinarriko laguntzari dagokienez?

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, egoera irregularrean dauden pertsonen diru-laguntzak emate aldera “Nafarroako Unibertsitateko langileei osasan-laguntza emateko hitzarmena” kontusaila erabili ordez “Garapenerako lankidetzaren” kontusaila erabiltzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, egoera irregularrean dauden pertsonen diru-laguntzak emate aldera “Nafarroako Unibertsitateko langileei osasan-laguntza emateko hitzarmena”

kontusaila erabili ordez “Garapenerako lankidetzaren” kontusaila erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan urtero onesten diren aurrekontuetan bada kontusail bat Osasun Departamentuan, "Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun-laguntza emateko hitzarmena" izenekoa.

2012rako, 5.359.585 euroko zenbatekoa esleitu zitzaion kontusail horri.

Galdera:

Egoera irregularrean dauden pertsonei diru-laguntzak emate aldera, "Nafarroako Unibertsitateko langileei osasun-laguntza emateko hitzarmena" kontusaila erabili ordez zergatik erabiliko da "Gara-penerako lankidetzatza" kontusaila?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, jakiteko ea zertan den emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta ekiditeko protokoloa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zertan den emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta ekiditeko protokoloa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Askotariko parlamentu-ekimen batzuen ostean, parlamentu-taldeak ados jarri dira mundu guztiko neskato, nerabe eta emakumeek pairatzen jarraitzen duten gizarite-gaitzetako bat gure gizaritean

mozteko eta prebenitzeko beharizanari dagokionez.

Emakumeen genitalen ebaketa kontrolatu, prebenitu eta, azkenik, desagerrarazi egin behar da gure inguruan, eta administrazioei dagokie, profesionalekin batera, horretarako tresnak jartzea eta zehaztea.

Ukitutako eragileek eta profesionalak eskueran eduki behar dituzte baliabideak eta tresnak, hala-ko moduan non sentsibilizazioa, prestakuntza eta kontrola errealitate hautemangarriak izan daitezten epe laburrean.

Eragileek eta organizazioek, bai eta parlamentu-talde guztiek ere, mahai gainean jarri zuten protokolo bereki bat taxutu beharra dagoela arazo honi ekiteko eta prebenitzeko; sinergia horri batu zitzaion departamentuaren konpromisoa, gure esparruan genitalen ebaketa bere maila guztietan prebenitzeko eta desagerrarazteko protokoloa prestatu eta ezartzekoa.

– Zertan da emakumeen genitalen ebaketa prebenitzeko eta ekiditeko protokoloa? Noizko aurreikusten da prest egotea?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an.

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, erretirodunen osasun-txartelen erabileran gertatzen den iruzurrari buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako galdera, erretirodunen osasun-txartelen erabileran gertatzen den iruzurrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko.

Orain dela gutxi, Osasun Batzordeko UPNren eledunak agerian utzi zuen erretirodunen osasun-txartelen erabileran gertatzen ari den iruzurra. Horren aurrean, PSN-PSOEek ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan eta egoera argitu dezan Osasun Batzordean.

Galdera:

- Nafarroako Gobernuak detektatuta al dauka gisa horretako iruzurra? Hala baldin bada, esan al diezagukezu zein den iruzurraren zenbatekoa?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak inolako neurririk hartuko duen Nafarroa Ecofinen egon dadin exijitzeko.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak inolako neurririk hartuko duen Nafarroa Ecofinen egon dadin exijitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak inolako ekimenik abiaraziko al du Nafarroa Ecofinen egon dadin exijitzeko?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren gaineko zenbait auziri buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren izenekoaren gaineko zenbait auziri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuako lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuako lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren parte hartzea dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

– Nafarroako Kutzako Sortzaileen Batzarraren Batzorde Iraunkorraren zenbat bileratan parte hartu duen.

– Non eta noiz egin ziren bilera horiek.

– Nork parte hartu zuen bilera horietan.

– Bilera horietako bakoitzean jorratu ziren gaien zerrenda.

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Merkataritza Ganberarekiko harremanean Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritateko eta kudeaketa-hobekuntzarako neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Merkataritza Ganberarekiko harremanean Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarri nahi ditu austeritateari eta kudeaketaren hobekuntzari dagokienez Merkataritza Ganberarekiko harremanean?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritate eta hobekuntza neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer austeritate eta hobekuntza neurri hartu nahi ditu, burtsa-balioetan sartutako baliabide publikoen kudeaketari eta horien gaineko erabakiak hartzeari dagokienez?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, "Itzaleko bidesaria" finantzaketa-ereduak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobekuntzako neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, "Itzaleko bidesaria" finantzaketa-ereduak direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobekuntzako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarri nahi ditu austeritateari, kudeaketaren hobekuntzari eta efizientziari dagokienez "itzaleko bidesaria" finantzaketa-ereduak direla-eta?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Moderna Planari lotutako jarduketa guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobetzeko neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Moderna Planari lotutako jarduketa guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketa nahiz efizientzia hobetzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu nahi ditu austeritateari eta kudeaketaren hobekuntzari dagokienez, Moderna Planari lotutako jarduketa guztien kudeaketa eta finantzaketa direla-eta?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, “Reyno Arena” pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Reyno Arena” pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu nahi ditu austeritateari eta kudeaketaren hobekuntzari dagokienez, "Reyno Arena" pabiloiaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta Nafarroako Gobernuak ezarri nahi dituen austeritaterako eta kudeaketaren hobekuntzarako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu nahi ditu austeritateari eta kudeaketaren hobekuntzari dagokienez, Los Arcosko zirkuituaren kudeaketa eta finantzaketa direla-eta?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroarako Inbertsio Publikoen Plana taxutu eta bukatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroarako Inbertsio Publikoen Plana taxutu eta bukatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Orain dela zenbait hilabete, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen Nafarroarako Inbertsio Publiko-
ei buruzko Plan berri bat taxutuko zuela. Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Zertan da plana taxutzeko prozesu hori? .
- Noiz egonen da plana prest?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak Foruzaingoan txapelaren erabilera arrunta ordeztzeko hartutako erabakiaren arrazoiei buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Foruzaingoan txapelaren erabilera arrunta ordeztzeko hartutako erabakiaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer dela-eta erabaki du Foruzaingoaren txapelaren erabilera arrunta ordezte, 30.000 eurotik gorako kostuarekin eta Foruzaingoko bertako ordezkari sindikalaren irizpidearen aurka?

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Miren Julia Aranoa Astigarraga andrea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Miren Julia Aranoa Astigarraga foru parlamentariak aurtengo urriaren 9an aurkezturiko idazkia, zeinarne bidez jakinarazten baitu Bildu-Nafarroa parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera